




**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUS JAIO
ZAIGU**

B SAIOA
AMENTZAT ETA AITENTZAT PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



**JESUS, MESIAS,
JAUNA JAIO ZAIGU
(Lk 2, 11)**

1. Helburua

- Eguberri aldian Jesus gure munduan, gure etxean eta gure bihotzean jaiotzen dela ospatzen dugula ikusi.

2. Edukiak

- KATEKESIA ALDERDIA. Eguberrietan, Jesusen Jaiotza ospatzen dugu.
- HITZA ETA OTOIZA ALDERDIA. Jesusen Jaiotzaren kontaketa.
- ELKARTEA ALDERDIA. Eguberrien elkarte ospakizuna.
- OSPAKIZUNA ALDERDIA. Elkarrekin goaz Belenerantz. Abendu – Gabon aldia.

3. Saioa

- B saioa amentzat eta aitentzat parrokan.

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

B SAIOA AMENTZAT ETA AITENTZAT PARROKIAN



Motibazioa

- Eguberrietan, Jesus gure munduan, gure etxean gure bihotzean jaiotzen da.



Azpimarrak

- Jainkoak Jesusengan gure giza izaera bizi nahi duela ikusi.
- Gure Eguberri aldiari kristau sena eman.



Idea nagusiak

- Eguberrietan, Jesusen Jaiotza ospatzen dugu. Lukas 2, 1-20 eta Mateo 2, 1-12.
- Mundu hobea egiteko zerbait egiten dugun bakoitzean jaiotzen da Jesus munduan.
- Gutako bakoitzak zerbait egin dezake Jesusen Jaiotza onartzeko.



Saioaren garapena begi-kolpe batean

Jaingoaren Hitza, txatal argitzailea

Orduan, bat-batean, egundoko distira zuen argiak zerua argitu zuen. Argiaren erdian, zutunik, aingerua zegoen. Ozen hitz egin zien artzainei esanez: "Berri onak! Inoiz eman dizueten berririk onena! Zuontzat eta mundu osoarentzat! Gaur, Belenen, zuon erregea jaio da!

"Zure Lehen Biblia", Giltza 292 - 301 orria

Bideoak

Entzuteko, egin klik irudiaren gainean



Jarduera

- "Barneratu"

Egin klik irudiaren gainean, "Lo más pequeño" bideoa ikusteko



Egin klik irudiaren gainean, "Navidad esperanzada" bideoa ikusteko



Bilketa eta laburpena proposamena

- Zeure eskuez.






Ezinbesteko lagungarriak

- Argazki anitzak Eguberriei buruzko argazki-hitza egiteko.
- Proiektatzeko aukera ematen duen gela (bideoak ikusteko).
- Kartulinak eta boligrafoak.
- Jaiotzaren kontaketa eta azken otoitza eta irudia jasotzen dituen orrialdea banatu.

Garrantzitsua da aldez aurretik saioaren dinamika ulertzeko eta saioan behar izango dugun guztia prestatzeko astia hartzea.



Saiorako gida

Katekistarentzat...

Katekesiko gela girotzeko, hutsik dagoen sehaska erdian jarriko dugu. Saioa lau unetan banatuko dugu:

- 1. Unea. Agurra eta aurkezpena.
- 2. Unea. Gaiaren azalpena, bideoak eta abestia.
- 3. Unea. Nork bere egin eta konpromisoa hartu.
- 4. Unea. Adierazpena eta laburpena.



Lehen unea. Agurra eta aurkezpena



1. Urratsa. **"Argazki-hitza"**. Hasteko, 'argazki-hitza' dinamika egingo dugu eta horren bitartek elkarriketari ekingo diogu, aitek eta amek Eguberriez duten ikuspuntuaren inguruan.

- Askotariko irudiak eskainiko dizkiegu, beren ustez 'Eguberri' hitza azaltzeko egokiena dena aukera dezaten.
- Norbere esperientzia batera jartzean datza.



Bigarren unea. Gaiaren azalpena.



2. Urratsa. **Ezagutzen ote dugu, benetan, ebanjelioak aurkezten digun kontaketa?** Ondoren, laguntzaileak ozen irakurriko du Jesusen jaiotzaren kontaketa.

- Lukasen ebanjeliotik hartutako 2, kapituluko 1-19 txatalak irakurriko ditugu eta, osagarri bezala, Mateo 2, 1-12 pasartea, Ekialdeko jakintsuen bisitaren berri ematen duena.



3. Urratsa. Kontaketa idatziz banatuko diegu eta tartea utzi bertan esaten dena bihotzetik pasatzeko. Ondoren agertzen diren galderen haritik hausnarketa egin dezatela eta, egokitzen joz gero, erantzunak batera jar ditzatela.

- Zer gertatu zaizue deigarrien?
- Zerk harritu zaituzte?
- Zer iritzi dute Jainkoaren Semea aska batean jaio izanaz?
- Ba ote du zerikusirik kontaketa honek guk Eguberrietan antolatzen dugun "korapiloarekin"?



Hirugarren unea. Nork bere egin eta konpromisoa hartu



4. Urratsa. Berri on hau nork bere egiteko, barruratzeko, berri hori eguneratu egiten duten bi bideo hauek ikus daitezke.

Egin klik irudiaren gainean, "Lo más pequeño" bideoa ikusteko



Egin klik irudiaren gainean "Navidad esperanzada" bideoa ikusteko





5. Urratsa. Elkarrizketan jardungo dugu ikusitakoaren inguruan... Honako galderok edo antzekoak lagungarri izan daitezke...

- Zer gertatu zait deigarrien?
- Zerekin gatoz bat?
- Zerekin ez gatoz bat?



6. Urratsa. Geure ingurura begiratu.

- Zein oroitzapen dugu lehengo Eguberrietatik?
- Zein giro nagusitzen da nire inguruan Eguberri aldian? Benetan, Jaunari lotutako, Jauna oinarritzat hartuta bizitako aldia da? Eta guk geuk, nola bizi dugu?
- “Zeure mundura, zeure bizitzara, zeure historiara nator”
 - Zer esaten dit hitz horrek?
 - Nola presta naiteke Eguberrietarako?
 - Beharbada, otoitz eginez, irakurgai desberdinen bat aukeratuz?
 - Nire bizitzaren orainaren eta geroaren esker oneko azterketa eginez?
- Alferreko boluntarismoetan jausi gabe, nire familian, lantokian, testuinguruetan...
 - Zer da benetakoena eta baliotsuena guretzat ospakizun honetan?
 - Nola lagun dezakegu familian Eguberriak kristau senez ospatzeko?



Laugarren unea. Landutako jaso eta laburtu



7. urratsa.

- Marraz ditzatela beren eskuen silueta kartulinetan eta aurretik hausnartutakotik zerbait idatz dezatela.
- Haurrek ere parrokian ospatu duten saioan eskuak marraztu eta bertan Jesusi nola egingo dioten harrera idatzi duten, txikien eta nagusien eskuak hartu eta etxeko jaiotzan ipintzeko esango diegu aitei eta amei.
- Zeinu txiki honek jaiotzaren aurrean familian otoitz egiteko aukera emango digu.



8. Urratsa. Tartetxo bat Jainkoarekin.

- Denok batera, otoitza egingo dugu.
- Eta entzun.



Jesus, maitasun, bizi eta egia zara
onartzen zaituenarentzat.
Gu bezala, familian jaio zara,
eta familia bedeinkatu egin duzu.
Gure familia bizi eta maitasunaren txoko izan dadila.
Gure pentsamendu eta egintzak
benetako familia egitera zuzen ditzagula.
Gurasook, egian eta maitasunean hazteko
laguntza sendo izan gaitzela seme-alabentzat.
Amen.

**Entzuteko, egin
klik irudiaren gainean.**

